



LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU-BATZORDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA.

I. KAPITULUA. LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU-BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK.

1. Artikulua. Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Batzordearen sorrera.

Lasarte-Oriako Herritarren Partaidetzarako Udal-Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritakoari jarraituz, honako Erregelamendu honen bidez Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Batzordea sortu eta erregulatu egiten da Herritarren Partaidetzaren printzipio orokorraren berme gisa.

2. Artikulua. Adskripzioa.

Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Batzordea Herritarren Partaidetzaren alorrean eskumena duen udal-arloari adskribitzen zaio.

3. Artikulua. Izaera juridikoa.

Auzoen Aholku-Batzorde Munizipala kide anitzeko organo gisa eratzen da, mota horretako organoak araututa baitaude Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, 15etik 18ra bitarteko artikuluetan.

4. Artikulua. Eginkizunak.

Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Batzordearen ardura izango da ondoko eginkizunak garatzea:

- a) Udalak jasotako kexa eta iradokizunen jarraipena egitea, eta haiei emandako erantzunen jarraipena ere egitea.



- b) Bilera bakoitzean jorratutako gaiak ezaguturik, Herritarrentzako Bulego Mugikorraren martxaren eta funtzionamenduaren jarraipena egitea.
- c) Herritarrentzako partaidetza prozesu guztien jarraipena egitea: erabilitako eredia, parte hartu duten pertsonak, jasotako erantzunak.
- d) Herritarren partaidetza-mota azpimarragarriren bat izan duten udal-jarduera guztien jarraipena egitea.
- e) Lasarte-Oriako herritarrengan eragina duten askotariko arazoei buruzko informazioa jasotzeko elkarteek eta auzo eragileek baliatuko duten foroa izatea, auzokoen kezka bideratzea, eta horiei buruz egoki iritzitako proposamenak egitea eta planteatzea.

II. KAPITULUA. LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU-BATZORDEAREN OSAERA.

5. Artikulua. Osaera.

1.- Auzoen Aholku-Batzorde Munizipala bozarekin eta botoarekin osatuko duten kideak hauek izango dira:

- a) Presidentetza: Udaleko Alkatea, zeinak presidentetza eragingarria eskuordetu ahal izango baitio udalbatzako edozein zinegotziri.
- b) Presidenteordetza: Herritarren Partaidetzarako Batzordeko Presidentetza duen zinegotzia.
- c) Udalbatza osatzen duten talde politikoetako zinegotzi bana.
- d) Auzo elkarteen udal-erregistroan izena emandako auzo elkarteetako bakoitza ordezkatzeko duen pertsona bat.

Herritarren Partaidetzaren arloan eskumena duen departamentuaz arduratzen den udal-funtzionarioak edo berak eskuordetzen duen funtzionarioak edukiko du Aholku-Batzordeko Idazkaritza. Aipatutako pertsonari egokituko zaio, Presidentetzaren zuzendaritzapean, hari laguntza eta aholku ematea.



Herritarren Partaidetzaz arduratzen den Udal-Batzordea aholkatuz parte hartzen duten teknikariek Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango dute aholkulari gisa, ahotsarekin baina botorik gabe, bai eta bilera bakoitzean jorratu beharreko gaien arabera Alkatetza-Lehendakaritzak erabakiko dituen teknikariek ere, hala badagokio.

Auzoen Aholku-Batzordea osatzen duten kide guztiek, hala nola hura aholkatuz parte hartzen duten teknikariek, zuhurtasunik eta konfidentziasunik handiena gorde beharko dute bileretan hizpidera atara daitezkeen edo banatuko zaien dokumentazioan ager litezkeen datu pertsonalei buruz. Hala egin ezean, dagozkion ondorioak hartu beharko dituzte beren gain.

2.- Batzordeko kideen herenak proposatuta, Lasarte-Oriako Udalak antolatutako partaidetza-prozesuez arduratu diren teknikariek parte hartu ahal izango dute bileretan, aholkulari gisa, ahotsarekin baina botorik gabe.

3.- Auzoen Aholku-Batzorde Munizipala osatuko dutenak alkate-dekretu bidez izendatuko dira eta Udalbatzari horren berri emango zaio.

4.- Ahotsa eta botoa dituzten kide guztiek osatzen dute Aholku-Batzorde Munizipala.

5.- Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko 4/2005 Lege otsailaren 18koan ezarritakoa betez, Auzoen Aholku-Batzordearen parte izango diren pertsonak aukeratu eta izendatzeko orduan, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatu behar dute: ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.

Lehen atalean aipatu diren elkarteek, Batzordean parte hartu nahi dutela eskatzeko, Alkatetzara joko dute, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako idazki bidez.



III. KAPITULUA. LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU-BATZORDEKO KIDEEN ESTATUTUA.

6. Artikulua. Kide-izaera.

1.- Alkate-dekretu bidez behin izendatuta, Auzoen Aholku-Batzordeko kide diren gizabanakoek izaera honi datzekion eskubideak izango dituzte eta dagozkion eginbeharrak bete beharko dituzte nahitaez.

2.- Kargu bakoitzeko titular bat eta ordezkoko bat izendatuko dira.

3.- Auzoen Aholku-Batzorde Munizipaleko kideek kide-izaera galduko dute ondoko arrazoiengatik:

- a) Heriotzagatik edo ezgaitasungatik, azken kasu honetan ebazpen judizial irmoz.
- b) Epea igarota, udal-agindua azkentzeagatik; hala ere, haien ondorengoak izendatu arte, beren funtzioetan jarraitu ahal izango dute (ohiko administraziorako soilik).
- c) Borondatezko ukoagatik edo dimisioagatik (idatziz egin beharko da Batzordearen Osoko Bilkuraren aurrean).
- d) Udaleko Zinegotziaren kargua uzteagatik edo karguari borondatez uko egiteagatik (Udaleko Osoko Bilkuraren aintzatespenarekin).
- e) Hautatu zutenerako elkartean baja hartzeagatik.
- f) Ordezkatzen duten elkarte, taldea edo kolektiboa desegiteagatik.
- g) Elkartearen estatutuetan aldaketa nabarmena gertatzeagatik, izendatu zituzteneko irizpideari horrek eragiten dionean.
- h) Batzordeko kideetako hiruk, gutxienez, proposatuta, Erregelamendu honetan adierazitako eginkizunak eta eginbeharrak behin eta berriro ez betetzeagatik.

4.- Batzordeko kide izaera galdu dela berretsiko duena Batzordearen Osoko Bilkura izango da e), f), g) eta h) letren kasuetan. Horrelako kasuetan, hurrengo hogeita hamar eguneko epean, izendapen berri bat egingo da Erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.



7. Artikulua. Eskubideak.

Batzordeko kideen eskubideak dira:

- a) Batzordearen Osoko Bilkura guztietan bertaratzea eta parte hartzea.
- b) Batzordearen Osoko Bilkurak hartutako erabakiei jarraituz antolatuko diren jarduera guztiei buruzko informazioa jasotzea.
- c) Batzordearen aktak eta dokumentazioa eskura izatea.
- d) Batzordearen eremuan interesak eta ekimenak aurkeztea eta defendatzea.
- e) Batzordearen bileretan ahotsarekin eta botoarekin parte hartzea.
- f) Proposamen bat garatzeko beharrezkoa den eta Udalbatzako zerbitzuen esku dagoen informazioa Batzordearen bitartez eskatzea, Datu Pertsonalak Babesteko Araudia uneoro aintzat hartuta.
- g) Erregelamendu hau edo aplikatzekoa den eta indarrean dagoen legeria betez esleitu ahalko zaizkionak.

8. Artikulua. Betebeharrak.

Batzordeko kideen betebeharrak dira:

- a) Batzordeak sustatutako jardueretan laguntzeaz gain, osoko bilkuretan parte hartzea.
- b) Batzordea hobeto garatzen eta sustatzen laguntzea.
- c) Batzordearen berariazko adostasunik izan gabe, Batzordearen ordezkapen mota oro saihestea.
- d) Erregelamenduan adierazitakoa errespetatzea eta betetzea.
- e) Elkarte, talde edo kolektiboen kasuan, ondoko zirkunstantzietako edozein Udalari jakinaraztea:
 - Hautatu zutenerako elkartean baja hartzea.
 - Ordezkatzen duten elkartea, taldea edo kolektiboa desegitea.
 - Ordezkatzen duen elkartearen estatutuetan egindako aldaketak.



- f) Erregelamendu hau edo aplikatzekoa den eta indarrean dagoen legeria betez esleitu ahalko zaizkionak.

9. Artikulua. Kalte ordainak.

Beren eginkizunak betetzeagatik Aholku-Batzordeko kideek ez dute inongo ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

IV. ATALA. LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU-BATZORDEAREN ANTOLAKETA.

10. Artikulua. Organoak.

Auzoen Aholku-Batzorde Munizipalak bere funtzionamendurako organo hauek ditu:

- a) Presidentetza.
- b) Presidenteordetza.
- c) Osoko Bilkura.

11. Artikulua. Auzoen Aholku-Batzordeko Presidentetzari buruz.

1.- Auzoen Aholku-Batzorde Munizipaleko Presidentetza Udalbatzako Alkatetza duenari egokituko zaio.

Presidentetza absente badago edota berariazko eskuordetza ematen badu, Presidenteordetzak beteko du haren jarduna.

2.- Presidentetzari ondoko eginkizunak dagozkie:

- a) Batzordearen eskumen eremuan indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzea.
- b) Batzordearen helburuak betetzen direla ziurtatzea.
- c) Batzordearen Osoko Bilkuran hartutako erabakiak betetzen direla begiratzea.
- d) Erakunde, entitate eta komizioetan aholku-organoaren ordezkaritza bere gain hartzea (Batzordeko kide bati eskuordetu ahal izango dio aipatutako ordezkaritza).



- e) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdia erabakitzea eta gai zerrenda zehaztea.
- f) Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako eskaera, eskakizun eta jardun guztiak dagokion udal-organoaren aurrean izapidetzea.
- g) Jorratu beharreko gaiak zeintzuk diren, egoki iritzitako pertsonak Batzordearen Osoko Bilkurara gonbidatzea, ahotsarekin baina botorik gabe.
- h) Batzordeko presidente karguari datxezkion funtzioak betetzea.
- i) Esleitu ahal izango litzaizkiokeen guztiak.

3.- Batzordearen bilkuretan, Presidentetzaren eskumenak izango dira:

- a) Bilkuren buru izatea, eztabaidak moderatzea, bilkuran ordenari eustea, eta justifikatuta egonez gero, bilkura bertan behera uztea.
- b) Bozketa batean berdinketa bat gertatuz gero, kalitate botoaren bidez bozketa ebatzea.

12. Artikulua. Auzoen Aholku-Batzordearen Presidenteordetzari buruz.

1.- Auzoen Aholku-Batzorde Munizipalaren Presidenteordetza Herritarren Partaidetzaren arloko eskumena duenari egokituko zaio. Presidentetza absente badago edota berariazko eskuordetza ematen badu, Udalbatzako zinegotzi batek beteko du haren eginkizuna.

2.- Presidentetza absente, hutsik edo gaixorik dagoenean, haren funtsezko misioa izango da hura ordezkatzeta.

13. Artikulua. Auzoen Aholku-Batzordearen Osoko Bilkurari buruz.

1.- Erregelamendu honetako bosgarren artikuluan aipatzen diren kide guztiek osatuko dute Auzoen Aholku-Batzorde Munizipalaren Osoko Bilkura, baita Batzordeko Idazkaritzak ere, zeinak bileretan parte hartuko baitu ahotsarekin baina botorik gabe, eta Alkatetza-Lehendakaritza izango da osoko bilkuraren buru.



2.- Batzordearen organo erabakitzaile gorena Osoko Bilkura da, eta ondoko atribuzioak dagozkie:

- a) Deialdi bakoitzean jorratu beharreko gaien buruz erabakitzea.
- b) Osoko Bilkuraren aurreko Akta onestea, hala badagokio, eta gai zerrendaren barruan sartu beharreko gaiak eta kontuak planteatzea.
- c) Udalak jasotako keak eta iradokizunak, hala nola haiei emandako erantzunak eskatzea eta ezagutzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudia aintzat hartuta beti.
- d) Saio bakoitzean jorratutako gaiak ezaguturik, Herritarrentzako Bulego Mugikorraren martxaren eta funtzionamenduaren jarraipena egitea.
- e) Herritarrentzako partaidetza prozesu guztien jarraipena egitea: erabilitako eredia, parte hartu duten pertsonak, jasotako erantzunak.
- f) Herritarren partaidetza-mota azpimarragarriren bat izan duten udal-jarduera guztien jarraipena egitea.

14. Artikulua. Auzoen Aholku-Batzordeko Idazkaritzari buruz.

Aholku-Batzordeko Idazkaritzak, Presidentetzaren zuzendaritzapean, ondoko eginkizunak beteko ditu:

- a) Osoko Bilkurarako deialdiak egitea, gai zerrenda eta aurreko bilkurari dagokion akta erantsiz beti.
- b) Batzordearen Osoko Bilkuraren bileretara joatea, bilera horiek aktan jasotzea eta Presidentetzarekin batera aktak izenpetzea.
- c) Artxibo eta erregistro eginkizunak, hala nola karguari datxezkion zeregin guztiak betetzea.



V. KAPITULUA. LASARTE-ORIAKO AUZOEN AHOLKU- BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK.

15. Artikulua. Bilerak.

Aholku-Batzordearen Osoko Bilkura sei hilean behin bilduko da ohiko izaeraz; ezohiko izaeraz, berriz, behar adina aldiz bilduko da Presidentetzak berak proposatuta edota Batzordeko kide guztien herenak, gutxienez, eskatuta.

16. Artikulua. Bertaratze quoruma.

Bilerak, deliberamenduak eta hartutako erabakiak baliozkoak izateko, beharrezkoa izango da lehen deialdian Presidentetza eta Idazkaritza karguak dituztenak bertan egotea edota haiek eskuordetutako edo haiek ordezkaturakoak bertan egotea, eta, gutxienez, Batzordearen Osoko Bilkurako kideen erdiak gehi bat bertan egotea. Quorum honi bilera osoan eutsi beharko zaio.

17. Artikulua. Deialdiak eta bilerak egitea.

- 1.- Bileren deialdia Batzordea bildu baino 15 egun lehenago egin behar da.
- 2.- Deialdiarekin batera bilkurako gai zerrenda igorriko da beti. Gai zerrendan jasotako gaien buruzko informazioa Batzordeko kideen esku egongo da epe berean, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko araudia aintzat hartuta beti.
- 3.- Batzordeko Presidentetzak, dela beraren ekimenez dela batzordeko kide izaera duten pertsonetako edozeinen eskariz, gai zerrendaren barruan sartuta ez dagoen beste edozein gai sartzea eskatu ahal izango du presako izaeraz eta deliberazioak hasi aurretik.



4.- Dena den, gai zerrendaren barruan sartuta ez dagoen gai bati buruzko deliberaziorik edo erabakirik hartzea ezinezkoa izango da, Batzordeko kide guztiak bertan egon ezik eta gehiengoaren aldeko botoekin hura presazkotzat jo ezik.

18. Artikulua. Lekua eta aktak.

1.- Aholku-Batzordearen bilerak Udaleko bulegoetan egingo dira, eta Batzordeko Idazkaritzak bilera bakoitzari dagokion akta jasoko du; gero, akta hau kideei igorriko zaie eta hurrengo bileran bozketapean jarriko da.

2.- Aktan informazio hau jasoko da:

- a) Lekua, data eta ordua.
- b) Presidentetzaren izen-abizenak eta bertaratu diren kideen izen-abizenak.
- c) Bileraren ohiko edo ezohiko izaera.
- d) Deliberazioen laburpenak eta kideek adierazitako iritzi edo/eta proposamen guztien laburpenak.

19. Artikulua. Erabakiak hartzea.

1.- Aholku-Batzordearen erabakiak bertaratuen gehiengo sinplez hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, Presidentetzak kalitateko botoa baliatu ahal izango du. Nolanahi ere, boto partikularrak har daitezke eta ados ez dauden alderdien iritziak jasota utzi.

2.- Hartutako erabakiak Aholku-Batzordeko Idazkaritzak egingo duen aktan jasota geratuko dira; eta akta hau, aztertu beharreko espedientearen parte izango da.

20. Artikulua. Batzordearen desegitea.

Auzoen Aholku-Batzordea osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez desegingo da, indarrean dagoen legeriaren arabera.



21. Artikulua. Baliabideen atxikipena.

Herritarren partaidetzaren eremuan eskumena duen udal-arloak, zeinari atxikita geratzen baita Aholku-Batzordea, beharrezko baliabideak jarriko ditu batzordearen funtzionamendu egokirako.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.

Erregelamendu honetan berriaz aurreikusi ez diren gauzetan, Lasarte-Oriako Auzoen Aholku-Batzordeak, bere jardunari begira, Lasarte-Oriako Herritarren Partaidetzarako Udal-Erregelamenduan ezarritakoari eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Aurretiazko Tituluko II. Kapituluko 3. zenbakian ezarritakoari jarraituko zaio. Gainerako xedapenetan, Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Entitate Lokalen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduan (2.568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa) ezarritakoa bete beharko da.

Bigarren xedapen gehigarria.

Aholku-Batzordeko Presidentetzari ahalmena ematen zaio, Erregelamendu honetan ezarritakoa aplikatzeko eta garatzeko behar adina jarraibide eman ditzan.



AZKEN XEDAPENA

Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Erregelamendu hau indarrean jarriko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean bere edukia osorik argitaratzen denean eta aipatu argitalpena egiten denetik hamabost asteguneko epea igarotzen denean.